

# Sententzia ileGALA

aski da!

[Amnistiaren Aldeko Mugimendua](#) ren aurkako auzian Madrilgo audientzia nazionalean epaituak izan direnek sententzia jasoko dute datorren asteazkenean entzutegi nazionalean. Sententzia honi erantzuteko asmoz mobilizatzeko deia luzatu die herritarrei Barakaldoko Amnistiaren Aldeko Mugimendua. Hona hemen hitzordua:

**Irailak 17, asteazkena, atsaldeko 20:00etan Bide Onera enparantzan**

## Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren prentsa oharra:

Amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auzian epaituriko 24 auziperatu zitatuak izan dira datorren asteazkenearako auzitegi nazionalean. Zitazioan zehazten ez den arren, aurreikusten duguna AAM -ren kontrako epaia emango dela da.

Epaia aspaldi idatzia dagoela salatu izan dugu eta igarotako auzia, jadanik sententziaturikoa estalki juridikoz janzteko saioa besterik ez da izan.

Sententzia irakurri eta aztertu beharko badugu ere, legeztatu egin nahiko dute AAM -ren kontrako jazarpen eta debekua. Legezatatuz eta txeke txuria eman ez ere berean Euskal Herriaren kontrako errepresio estrategia osoari, torturari, guda zikinari, askatasun eta eskubide demokratiko oinarritzkoen zanaketa, espetxe politika kriminal eta hiltzaileari, espetxeratze masiboari, etab.



Bereziki larria eta indarrez salatu beharrekoa beraz, ez da soilik mugimendu honen

kriminalizazioa lege bilakatuko dutela. Honen atzean, preso eta errepresaliatuekiko elkartasuna, errepresio eta eskubide urraketan salaketa eta askatasun demokratikoen defentsaren kriminalizazio eta debekua, lan politiko eta sozial honen legez kanporatzea dago.

Honekin bilatzen dutena PSOE -ren gobernuak Euskal Herriari begira abian duen ziklo errepresiboak bidea garbi eta eskuak libre izatea da. Errepresioa inolako mugarik gabe eta inpunitate osoz gauzatu ahal izatea Euskal Herriaren kontra. Demokrazia ezak, salbuespen egoerak eta eskubide oinarrizkoenen zanpaketa larriak inolako salaketarik parean izan ez dezan bilatzen dute. Euskal Herrian dagoen defizit demokratikoa normalizatu eta askatasun eta oinarri demokratikoen aldeko aldarrikapen, indar eta mugimendua erditik kentzea.

Sententzia hau, ilegalizazio politikaren bultzadaz burutzen ari diren erasoaldiaren baitan kokatzen da. Euskal Herria salbuespen egoerara eraman dute. Pareko defizit demokratiko eta inpunitate maila topatzeko 30 urte atzera egin behar dugu, diktaduratik -diktadurarako sasi demokrazia izan diren 30 urteek argi adierazten dutenez. Eraso hau beraz, erasoaldi iraunkor eta masibo baten erdian kokatzen da eta ikuspuntu horretatik erantzun behar diogu, hain justu, Amnistiaren aldeko mugimendua baita errepresioari aurre egin eta egunero demokrazia baterako oinarriak aldarrikatu eta borrokatzen dituen mugimendua.